

IL AZALPEN PROBA • <i>Gerezi denbora</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*k* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Logelan janzen ari nintzela, entzun nion Romani garrasia: “Azkar etorri, konpañero, ez zaukaagu denborarik galtzeko”. Totelka ematen zuen. Izorratuko haiz ederki, pentsatu nuen neure artean, eta mantsoago jarraitu nuen janzen. Larri sentitu nuen gero haren ahotsa: “Konpañero! Jainkoaren izenean...”. Belarri zorroztu nuen. Karmen zen orain garrasika: “Nola esan duk?”. Eta segituan: “Biba Bakunin! Biba Bakunin!”. Alkandora galtza barrenera sartuz hurbildu nintzen sukaldera. Roman sukaldearen izkina baten kontra zegoen kikil-kikil eginda, kolpe bat hartzeko beldur balitz bezala, besoa babestzat jaso. Karmen zeukan ia gainean, mehatxari.

–Ikusi zergatik deitzen diogun Apaiza... –bururatu zitzaidan aurreneko gauza izan zen–. Beraren burua estu ikusten duenean, jainkoa etortzen zaion mingainera! Baina mutil ona dun bestela... Durrutiren hurrengoa.

IL AZALPEN PROBA • <i>Gerezi denbora</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor *idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...*
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Hiru kontrol aurkitu genituen ordu arteko bidean. Aurrena Eibarren; sarreran bat, eta irteeran bestea. Kontrol bera zen: UGTkoena. Begien parean alderantziz jarrita irakurri zuten gure igaro-baimena irteerakoek. Kexu agertu ziren hala ere, hiru bat tinta-urratu ageri zirela eta. Denok jaitsarazi, eta zeharo-zeharo miatu zituzten kamioiaren barruak. Elementu faxisten bila omen zebiltzan... aulki azpietan. Aurrerago, Deba pasatu ondoan, CNTkoen kontrola. Arazorik ez zuten jarri haiek, eta nahikoa barre egin zuten gure kamioiaren gurtesian idatzita zegoena irakurrita eta Fructuosok idatzi nahi zuena entzunda.

Zarautza iritsi, errepide ertzetik trenbide aldera egin eta, hura pasatuta, benta itxurako ostatu batean geratu ginen: Azken Portu. Banderak hagatan bilduta sartu ginen barrura, eta etxeoandrea atera zitzaigun bidera: ez zeukatela gauza handirik guri jaten emateko; arrainik ez, behintzat; baporeek ezin izan zutela itsasora irten, eta ez zegoela alerik; Cervera itsasontzi faxista zebilela aste guztian Hondarribitik Zarautza bitarteko itsasbidea egiten, eta alferrik zela.

IL AZALPEN PROBA • Gerezi denbora	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*k* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Hurbil zegoen Larramendi kalea. Bide erdian, Urbieta kalean aurrera gindoazela, ezin izan nion gehiago barruko harrari eutsi; automobila espaloiaren kontra geldiarazi, eta, atzealdera jiratuta, Karmeni esan nion:

–Gauza bat esan behar dinat, Karmen. –Listua irentsi nuen–. Hau apaiza dun. Baina ez izengoitiz bakarrik; apaiza, igandero kasulla jantzi eta meza ematen duena. Neu ere apaizgai izan nindunan orain hiru urte arte. Eta orain, nahi badun, jaits haiteke...

Romanek izuturik begiratu zidan, ahozabalik. Karmen, ordea, ez zirudien askorik izutu zenik.

–A, hori al zen! –esan zuen, masailetan behera zetozkion bi malko iheskor xukatzen zituela–. Sumatzen nian zerbait...

Zur eta lur geratu ginen Roman eta biok. Ez ginen ausartu ezer galdetzera, edo ez ginen galderak egiteko gauza izan, auskalo. Karmenek, ordea, gure harridura ikusita, lasai esan zigun:

–Nora goaz?

Eta dena azaldu zion Romanek. Ez zirudien oso jota zegoenik gure aitorten bat-batekoa entzunda.

IL AZALPEN PROBA • <i>Gerezi denbora</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor *idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...*
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Ondarretan hemeretzi izenak eman omen zituzten, eta, iskanbilarik gabe, baina entregatu omen zituzteten hemeretzi lagunak.

–Hemen dituzuen gizaseme horiek dira...

–Eta hogeigarrena?

Berandu izango zela harentzat ordurako. Baina Artolak ez zuela etsitzen, eta hor zebilela izen hura gogoratu nahian.

Une horretan, Irujo bera agertu zen eskaileretan gora. Zuzen-zuzenean joan zitzaion Artola.

–Olagibel –esan zuen Irujok, lurrera begira.

–Olagibel Urdaneta... –atera zitzaion Artolari, bat-batean, gorputzeko gihar guztiak lasaituta. Lepazamarretik heldu zion Irujori; begiak atera beharrean zirudien. Ez zuen ezer esan, baina begi haiek galdera egiten zioten Irujori. Irujok burua mugitu zuen ezker-eskuin. Atzean zeukan zurezko habearen kontra jarri zuen gizonak bizkarra eta poliki-poliki eseri zen lurrean. Bi eskuez ezkutatu zuen aurpegia gero.